Zamudio Udala
www.zamudiokoudala.net
Sabino Arana plaza 1, 48170 Zamudio, Bizkaia
Tel: 944060990 / Faxa: 944030622 / udala@zamudiokoudala.net

**DEIALDIA, 2022/2023 IKASTURTEETAKO IKASKETA-LAGUNTZAK LEHIAKETA BIDEZ EMATEKO.**

## 1. artikulua.- Diru-laguntzaren xedea

1.- Deialdi honen xedea da, 2022/2023 ikasturteetan trebakuntza-zentroetan eta ikastegietan ikasketak egiteak Zamudioko herritarrei dakarzkien gastuak finantzatzea, betiere ikasketa horiek deialdi honetan aipatzen direnak badira, horrela udalerriko biztanleen artean jakintza sustatzeko eta kultura-maila handitzeko.

2.- Ikasketak goi-mailakoak diren kasuan, arau hauen 4. artikuluan aipatutako ikasketak izan ahal izango dira diru-laguntza honen xede, betiere ikasketa horien tituluak Estatuan homologatuta badaude. Ikasketak erdi-mailakoak badira, Estatuan homologatutako zentroetan egin beharko dira.

3.- Oinarri hauetan sartuta ez dauden ikasketek ez dute laguntzarik jasoko; esaterako, espezializazio-ikastaroak eta antzekoak. Euskara-ikastaroetarako ere ez da diru-laguntzarik emango, ikastaro horietarako diru-laguntzak Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitateak ezarritako baldintzetan eta moduan ematen baitira (diru-laguntza horiek beste prozedura batzuk erabiliz ematen dira, Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitateak onetsitako arauei jarraiturik).

## 2. artikulua.- Araubide juridikoa

Ikasketa-laguntzak ematea arau eta lege hauen arabera emango dira: oinarri arautzaile hauetan aurreikusitakoaz eta deialdi honetaz gainera, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra, Diru-laguntzen Erregelamendu Orokorra

**CONVOCATORIA PARA LA CONCESIÓN POR CONCURRENCIA COMPETITIVA DE AYUDAS PARA ESTUDIOS DE LOS CURSOS 2022/2023.**

## Artículo 1.- Objeto de la subvención

1.- La presente convocatoria, tiene por objeto financiar los gastos que generan en los vecinos y vecinas de Zamudio la realización de estudios en diversos centros de formación y en las academias para los estudios que se señalan exclusivamente durante los cursos académicos 2022/23, con el fin de fomentar el conocimiento y obtener un mayor nivel cultural en la población del municipio.

2.- Cuando se trate de estudios superiores, podrán ser objeto de subvención los contenidos en el artículo 4 de esta convocatoria cuyos títulos se encuentren homologados en el estado. Si se tratan de estudios medios deberán ser cursados en centros homologados del estado.

3.- No serán objeto de ayuda, los estudios no comprendidos en la relación incluida en la presente convocatoria, tales como cursos de especialización y similares. Tampoco serán objeto de subvención, cursos de euskera que serán objeto de subvención en los términos y formas establecidos en la Mancomunidad de Servicios de Txorierri (que cuentan con sus propios procedimientos, a través de las bases aprobadas por la Mancomunidad de Servicios de Txorierri).

## Artículo 2.- Régimen jurídico

La concesión de las ayudas de estudio se regirá, además de por lo previsto en las Bases reguladoras y por lo establecido en la presente convocatoria, por la Ley 38/2003, de 17 de Noviembre, General de Subvenciones, por el RD.887/2006, de 21 de julio, por el

onesten duen uztailaren 21eko 887/206 Errege Dekretua eta konpromiso-gastuaren onarpenaren eta kudeaketaren arloei dagozkien aurrekontu-arauak.

que se aprueba el Reglamento general de Subvenciones y por la regulación presupuestaria competente en lo que la aprobación y gestión del gasto se refiere.

**3. artikulua.- Aurrekontu-egozpena**

1.- 2022/2023 ikasturterako laguntzen zuzkidura HIRUROGEITA BOST MILA EUROkoa da (65.000€) gehienez. “Bekak ikasketa-pentsioak” deritzon 3260 48001 aurrekontu-partidaren kontura izango da.

**Artículo 3.- Imputación presupuestaria**

1.- La dotación de ayudas queda establecida para la presente convocatoria a la cifra máxima total de SESENTA Y CINCO MIL EUROS (65.000€), con cargo a la partida presupuestaria 3260 48001 denominada “Becas y pensiones de estudio”.

**4. artikulua.- Diru-laguntzaren zenbatekoa**

1.- Laguntza pertsonako eta **eskatutako ikasturteko** baino ezin daiteke eman, honako zenbatekoetan eta honako ikasketetarako:

**Artículo 4.- Importe de la subvención**

1.- La ayuda que se puede conceder por persona y por **curso académico solicitado** es exclusivamente por los importes y estudios que seguidamente se relacionan:

| **ZENBATEKOA** / IMPORTE | | **IKASKETAK** / ESTUDIOS |
|---|---|---|
| 600 € | A) | **GRADUKO IKASKETAK**<br>ESTUDIOS DE GRADO |
| 600 € | B) | **BIGARREN ZIKLOKO GRADUONDOKO OFIZIALAK “Masterrak”**<br>POSTGRADOS OFICIALES DE SEGUNDO CICLO “ Master” |
| 300 € | C) | **HIRUGARREN ZIKLOKO GRADUONDOKO OFIZIALAK “Doktoregoa”**<br>POSTGRADOS OFICIALES DE TERCER CICLO “Doctorado” |
| **22 € hileko** / mes<br>**(Muga honekin** / hasta límite de: **22 x 9 =198€)** | D) | **HIZKUNTZAK (Euskara izan ezik, 1. artikuluaren arabera, Mankomunitateak ematen baitu)**<br>IDIOMAS (Excluido el euskara, según artículo 1º.- Que se imparte desde la Mancomunidad) |
| 198 € | E) | **UDAKO IKASTAROETAN ATZERRIAN IKASITAKO HIZKUNTZAK**<br>IDIOMAS CURSADOS EN EL EXTRANJERO DURANTE CURSOS DE VERANO |
| 220 € | F) | **LANBIDE HEZIKETAKO ZIKLOAK**<br>CICLOS FORMATIVOS DE F.P. |
| 220€ | G) | **GRADUKOEN BALIOKIDE DIREN MUSIKA IKASKETAK**<br>ESTUDIOS DE MÚSICA EQUIVALENTES A GRADO |
| 220 € | H) | **BATXILERGOA**<br>BACHILLERATO |

2.- Ematen den laguntzaren zenbatekoa inoiz ere ezin izango da diru-laguntza jasotako ikasketen kostua baino handiagoa izan; ematen den laguntza, beraz, justifikatzen den gehienezko zenbatekora mugatuko da eta aipatutako zenbateko horrek ezin izango du gainditu aurreko taulan ikasketen arabera adierazitakoa. Ondorioz, justifikatutakoa gainditzen duena kendu egingo da.

2.- En ningún caso, el importe de la ayuda concedida podrá superar el costo de los estudios subvencionados, en cuyo caso la ayuda concedida se limitará al importe máximo justificado, sin que el importe citado supere lo reflejado en la tabla anterior según los estudios a que se refieran. Por ello se restará el exceso sobre el importe de la ayuda.

Zamudio Udala
www.zamudiokoudala.net
Sabino Arana plaza 1, 48170 Zamudio, Bizkaia
Tel: 944060990 / Faxa: 944030622 / udala@zamudiokoudala.net

3.- Ikasketetarako laguntzaren zenbatekoa ikasketek irauten duten hilabeteen arabera kalkulatzen bada, laguntzaren zenbateko osoa izango da aurreko taulan ezarritako zenbatekoa eta ikasturteak irauten duen hilabeteen edo zatikien kopurua biderkaturik ateratzen den zenbatekoa; gehieneko muga matrikularen kostua izango da.

3.- En los estudios en los que se determina el importe de la ayuda según los meses de duración del curso, el importe total de la ayuda equivaldrá al importe reflejado en la tabla anterior multiplicado por el número de mensualidades o fracción de duración del curso y con el límite máximo del coste de la matrícula del curso.

4.- Ikasketak atzerrian egiten badira —E) kasuan izan ezik—, zenbatekoa lehen adierazitakoa halako bi izango da.

4.- En el caso de que los estudios se realicen en el extranjero, excepto en el caso E), el importe será el doble del indicado anteriormente.

**5. artikulua.- Deialdia eta epea**

1.- Laguntza-eskaerak, telematikoki bakarrik, aurkezteko epea, deialdi hau 2023eko uztailaren 17an hasi eta 2023eko urriaren 27an amaituko da, eta eskaerak aurrez aurre aurkezteko epea 2023eko irailaren 18an hasiko da eta 2023eko urriaren 27an amaituko da.

Eskaera horiek, arauotan aipatutako gainerako agiriekin batera, Zamudioko Udalaren Erregistro Orokorrean aurkeztuko dira bulego-orduetan.

2.- Epe horretako azken eguna zapatua edo jaieguna bada, epea hurrengo egun baliodunera arte luzatuko da.

3.- Ebazpena emateko epea hiru hilabetekoa izango da gehienez, ikasketa-laguntza eskatzeko epea amaitzen den egunetik aurrera. Epe horretan ezer ebatzi ezik, eskaerari ezezkoa eman zaiola ulertuko da.

4.- Interesdun bakoitzak eskaera bat baino ezin izango du egin deialdi honen eta arau-

**Artículo 5.- Convocatoria y plazo**

1. - El plazo para presentar las solicitudes, de forma exclusivamente telemática, se iniciará 17 de julio del 2023 y finalizará el 27 de octubre de 2023, mientras que el plazo para presentar las solicitudes de forma presencial, se iniciará el 18 de septiembre de 2023 y finalizará el 27 de octubre de 2023.

Dichas solicitudes, junto con la demás documentación a que se refieren la presente convocatoria, será presentada en el Registro General del Ayuntamiento de Zamudio en horario de oficina.

2.- Si el último día del plazo coincidiese con sábado o festivo, el plazo finalizará al siguiente día hábil.

3.- El plazo máximo para dictar la resolución será de 3 meses a contar desde la fecha de finalización del plazo de presentación de las solitudes de ayuda para estudios. En el caso de que en el citado plazo no se resolviese, deberá entenderse desestimada la solicitud presentada.

4.- Por cada persona interesada solamente podrá formularse una solicitud al amparo de

on babespean.

6. artikulua.- Onuradunak

Diru-laguntzaren xede diren ikasketak egiten dituen pertsona adingabea bada, diru-laguntzaren onuraduna adingabearen legezko tutorea izango da eta haren izenean aurkeztu beharko du, adingabearen datuak adieraziz. Bestela, ikasketak egiten dituen pertsona izango da diru-laguntzaren eskatzailea eta onuraduna.

Adin nagusikoa den edozein pertsona fisiko izan daiteke ikasketa-laguntza hauen onuraduna, baldin eta betetzen baditu berariazko arau hauetan ezarritako baldintzak, deialdian, diru-laguntzak emateko udal-ordenantza orokorrean eta gainerako araudi aplikagarrian ezarritakoa eta baldintza hauek:

a) Diru-laguntzen deialdia onartzen den unean gutxienez urte bi lehenagotik bizitzea eta erroldatuta egotea Zamudion.

Epe hori eten ahal izango da ikasketak atzerrian egiteagatik ikasleak Zamudioko udalerriko erroldan baja eman behar izan badu eta ikasketak egiteko bizileku hartu beharreko herrialdeko udalerrian alta eman behar izan badu; hori guztia agiri bidez egiaztatu beharko du.

b) Sei urte edo gehiago izatea edota diru-laguntzaren xede diren ikasketen ikasturteari dagokion urte naturalean betetzea adin hori.

c) Aurreko ikasturtea gainditu beharra izango da, salbu eta laguntza lehenbiziko aldiz eskatzen denean; horretarako, ikastetxearen edo unibertsitatearen agiria edo zuribidea aurkeztu beharko da, eta izandako kalifikazioak edo diru-laguntza ja-

la presente convocatoria.

Artículo 6.- Personas beneficiarias

En el caso de que la persona que realiza los estudios objeto de subvención sea menor de edad, la persona beneficiaria de la subvención será el tutor o tutora legal de la persona menor, debiendo presentar la solicitud a nombre de la misma, con indicación de los datos de la persona menor. En caso contrario, será la persona que realiza los estudios la solicitante y beneficiaria de la subvención.

Podrán resultar beneficiarias de éstas ayudas para estudios, cualquier persona física, mayor de edad que cumpla, además de los requisitos establecidos en la Convocatoria y en la Ordenanza General Municipal Reguladora de la concesión de subvenciones y demás normativa de aplicación, los siguientes requisitos:

a) Ser residente y persona empadronada en Zamudio con una antigüedad de al menos 2 años, en el momento de aprobación de la convocatoria de la subvención.

Este plazo podrá ser interrumpido en el caso de estudios realizados en el extranjero que impliquen la baja padronal en el municipio de Zamudio y el alta en el municipio del país de residencia durante la duración de los estudios, lo que se acreditará documentalmente.

b) Tener seis años, o más de edad, o cumplirlos durante el año natural en el que se celebre el curso académico de los estudios objeto de subvención.

c) Salvo que sea la primera vez que solicita la ayuda, deberá haber superado el curso anterior, presentando documento o justificante del Centro o Universidad de las calificaciones obtenidas, y/o calificaciones del último curso que ha sido objeto de subven-

Zamudio Udala
www.zamudiokoudala.net
Sabino Arana plaza 1, 48170 Zamudio, Bizkaia
Tel: 944060990 / Faxa: 944030622 / udala@zamudiokoudala.net

sotako azken ikasturteko kalifikazioak jaso beharko dira bertan.

d) Ikasturte horri dagokion diru-laguntza jasotzeko, 2019/2020 ekitaldian egindako ikasturteko matrikularen egiaztagiria aurkeztu beharko du.

Matrikula baliozkoa dela ulertuko da, diru-laguntzaren ondorioetarako, baldin eta gutxienez ikasturte horretako hiru ikasgai hartu badira eta ikasgai horiek kredituen % 50 bete badute.

e) Laguntzak ematen badira ikasketak udan atzerrian egiteko, nahitaezkoa izango da egiaztatuta geratzea atzerriko ikastetxe edo akademiaren batean dagoela matrikulatuta.

ción.

d) Deberá presentar justificante de la matrícula del curso realizado en el ejercicio 2022/2023 para recibir la subvención que corresponde a citado curso escolar.

Se entenderá que es válida la matrícula, a efectos de la subvención, si se refiere al menos a tres asignaturas del citado curso que representen el 50% de los créditos establecidos.

e) En ayudas a estudios realizados en verano en el extranjero, es obligatorio que quede acreditado que se esté matriculado en un colegio o academia en el extranjero.

**7. artikulua.- Eskaerak aurkeztea**

Eskatzaileek agiri hauek aurkeztu behar dituzte:

A) Udalak diseinatutako eskabide eredua aurkeztea; eredu hori Udalaren webgunean ere (www.zamudio.eus) eskura daiteke. Eskabide eredua behar bezala bete behar da eta Zamudioko Alkatetzari zuzendurik aurkeztu Udaletxeko sarrera-erregistroan. Argi zehaztu beharko da zein ikasketa egingo diren, zein titulaziori dagozkion, zein den ikasketen iraupena, zein zentrotan egingo diren, zenbat ikasturte geratzen diren titulua lortu arte, eta eskabide ereduan azaltzen diren beste datu guztiak.

B) Eskaera eredu horrekin batera, interesdunak honako agiri hauek ere aurkeztu beharko ditu:

-Laguntza-eskaera izenpetzen duen eskatzailearen NANen fotokopia.

**Artículo 7.- Presentación de solicitudes**

Las personas solicitantes deberán cumplimentar la siguiente documentación:

A) Presentar el modelo de solicitud establecido por el Ayuntamiento, el cual estará también disponible en la Web municipal (www.zamudio.eus), debidamente cumplimentada, dirigido a la Alcaldía del Ayuntamiento de Zamudio, en el Registro de Entrada del Ayuntamiento. Se deberán especificar claramente los estudios cursados, así como la titulación a la que se refieren, duración del curso, centro en el que se han impartido, cursos que restan hasta la obtención del título y todos los demás datos que al respecto se reflejen en el modelo de solicitud.

B) Junto con el citado modelo de solicitud, la persona interesada deberá presentar la siguiente documentación:

- Fotocopia del DNI de la persona solicitante que suscribe la solicitud de

Ikasketa-laguntza jasotzen duten adingabeei ematen zaizkien ikastaro edo prestakuntzen kasuan, gurasoek, tutoreek edo adingabeak zaintzeko eta jagoteko ardura dutenek sinatu beharko dute laguntza-eskaera; NA-Nen fotokopia eta familia-liburua aurkeztu behar dituzte.

-Laguntza-eskaeraren xede den ikasturteko matrikulari eta haren kostuari buruzko ziurtagiria; ziurtagiri horretan, matrikula horren kostua jaso beharko da. Laguntzaren zenbatekoa iraupen-hilabeteen arabera zehazten den ikasketen kasuan, honako hau izango da ikasketen guztizko zenbatekoa: hileroko bat eta ikasturteak irauten duen hilabeteen kopurua biderkaturik ateratzen den zenbatekoa. Ikasketak akademietan egiten dituztenek akademiaren idazki bat erantsi beharko dute, hilero ordaindu beharreko zenbatekoa

-Kostu ekonomikorik gabeko matrikulen kasuan, matrikulari buruzko ziurtagiria aurkezteaz gainera, laguntza-eskaeran aipatzen diren ikasketen ikasturteko irakasgaiei buruzko ikasketa-liburuen fakturak aurkeztuz justifikatu ahal izango da diru-laguntza. Laguntzaren zenbatekoa ezin izango da inoiz justifikatutako zenbatekoa baino handiagoa izan.

-Atzerriko ikasketen kasuan, matrikulari buruzko ziurtagiriaz gainera, laguntza ekonomikoaren eskaeran aipatzen diren ikasketak egingo direneko zentroaren ziurtagiri bat aurkeztu beharko da, zeinetan egiaztatuko baita noiz sartu den zentroan; Zamudioko erroldan baja gertatuz gero, atzerriko herrialdean bizilekua izateari edo erroldatuta egoteari bu-

ayuda. En el caso de referirse a cursos o formaciones impartidas a personas menores de edad destinatarias de la ayuda, deberá estar suscrita por los padres, madres, tutores, tutoras o quienes sean responsables de su guarda y custodia, aportando la fotocopia del DNI y del libro de familia.

-Certificado de matrícula del curso para el que se solicita la ayuda y coste del mismo, debiendo recogerse el costo de la citada matrícula. En el caso de los estudios en los que se determina el importe de la ayuda por los meses de duración, el importe total del costo de los estudios será el de una mensualidad multiplicada por el número de mensualidades de duración del curso. Quienes cursen estudios en academias deberán acompañar el escrito de la citada academia en el que se señale el importe mensual a abonar.

-En el caso de matrículas sin costo económico, además de presentarse el certificado de matrícula, podrá justificarse la subvención mediante la presentación de las facturas de los libros de estudio de las asignaturas del correspondiente curso de los estudios a que se refiere la petición de ayuda. En ningún caso el importe de la ayuda podrá superar el importe justificado.

-En el caso de estudios en el extranjero, además del certificado de matrícula, deberá presentarse certificado expedido por el centro en el que se imparten los estudios para los que se solicita la ayuda económica en el cual se confirme la fecha de incorporación al mismo y certificado de residencia y/o empadronamiento en el país extranjero en caso de haberse produ-

ruzko ziurtagiria ere aurkeztu beharko da.

cido la baja padronal de Zamudio.

-Laguntzarik ematen bada, sarrera egingo den kontuaren titularrari buruzko bankuko datuak, bankuari buruzkoak eta kontu-zenbakia (24 digitu, IBAN barne).

-Datos bancarios, relativos al titular de la cuenta, entidad bancaria y número de cuenta (24 dígitos, IBAN incluido), en la que se desea que se realice el ingreso de la ayuda en el caso de ser concedida.

- Ziurtagiri akademikoa, 2022/2023 ikasturteak gainditu direla egiaztatzeko, eta hori ezean 2022/2023 ikasturtea gainditu dela egiaztatzeko notak zehazten dituen agiria.

- Certificado académico en el que se acredite haber superado los cursos 2022/2023 o, en su defecto, el documento en el que se reflejen las notas acreditativas de haber superado el curso 2022/2023.

C) Eskaerak aurretik ezarri diren aurreko baldintza guztiak edo baldintza orokorrak betetzen ez baditu, interesdunak hamar eguneko epea izango du hutsa zuzentzeko.

C) En el caso de que la solicitud no reúna todos los requisitos establecidos con anterioridad, y los de carácter general, la persona interesada dispondrá de un plazo de diez días para que subsane su falta.

D) Udalak eskaera ebatzi ezik hiru hilabeteko epean, eskaerak aurkezteko epea amaitzen den egunetik aurrera, eskaerari ezezkoa eman zaiola ulertu beharko da.

D) En el caso de que no se resuelva la petición por el Ayuntamiento en el plazo de 3 meses a contar desde el último día establecido para la presentación de las solicitudes, se entenderá la misma desestimada.

E) Deialdi honen 4. artikuluko E) atalean aipatutako ikasketen kasuan, urte horretan bertan aurkeztuko da eskaera, ikasturtea egin ondoren.

E) En el caso de los estudios del apartado E) del artículo 4, igualmente se presentará la solicitud y justificación del gasto objeto de la ayuda.

F) Ikasturtea osorik egin ez dutenek ezin izango dute eskaera egin.

F) No podrán formular la solicitud de ayuda aquellas personas interesadas que no hayan realizado el curso completo.

G) 2019/20 ikasturteko beketarako laguntza eskatu zutenek, aurkeztutako edozein eskaerarako eman baldin bazitzaien, ikasturte horretako edozein bekatarako ezin izango dute berriro laguntzarik eskatu.

G) Las personas que solicitaron ayuda para las becas del año 2019/20 y les fue concedida para cualquiera de las solicitudes que hubieren presentado, no podrán solicitar de nuevo ayuda para cualquier otra beca para dicho curso.

**8. artikulua.- Instrukzio-organoa**

1.- Diru-laguntzak emateari buruzko udal-ordenantza orokorraren 14. artikuluan xedaturikoaren arabera, Zamudioko Udaleko Kultura, Hezkuntza, Gizarte Ekintza, Euskara eta Integrazioko zinegotzi ordezkaria izango da espedientearen instruktorea.

2.- Kide anitzeko organo batek egingo du txostena eta bertan zehaztuko du zein den ebaluazioaren emaitza eta zein den diru-laguntza emateko proposamena; kide anitzeko organo hori Zamudioko Udaleko Kultura, Hezkuntza, Gizarte Ekintza, Euskara eta Integrazioko informazio-batzordea izango da.

3.- Deialdiari buruzko erabakia edo ebazpena Tokiko Gobernu Batzarrak emango du, instrukzio-organoak proposaturik.

**Artículo 8.- Órgano instructor**

1.- Conforme a lo dispuesto en el Art. 14 de la Ordenanza Municipal General Reguladora de la Concesión de Subvenciones el Instructor del expediente será el Concejal o Concejala delegada de cultura, educación, acción social, euskera e integración del Ayuntamiento de Zamudio.

2.- El órgano colegiado que emitirá el informe en el que se concrete el resultado de la evaluación efectuada y la propuesta de concesión, será la Comisión Informativa del área cultura, educación, acción social, euskera e integración del Ayuntamiento de Zamudio.

3.- El acuerdo o resolución de la convocatoria se adoptará por la Junta de Gobierno Local, a propuesta del órgano instructor.

**9. artikulua.- Balioespen-irizpideak eta diru-laguntza emateko prozedura**

Diru-laguntza emateko prozedura lehiaketa izango da, diruz lagundutako atal bakoitzerako adierazten diren puntuen araberako lehentasunekin, eskaeren lehentasuna eta prorrata ezarriz:

1.- Diru-laguntzak arauotan eta deialdi honetan ezarritako betekizun guztiak betetzen dituzten eskatzaile guztiei emango zaizkie, zehaztuko diren kopuruetan, betiere aurrekontuko partidaren muga gainditzen ez bada eta irizpide hauek aplikatuz:

a) Graduko ikasketak eta bigarren zikloko graduondoko ikasketa ofizialek 100 puntu izango dute.
b) Hirugarren zikloko graduondoko ikasketa ofizialek 80 puntu izango dute.
c) Lanbide Heziketako zikloetako ikas-

**Artículo 9.- Criterios de valoración y procedimiento de concesión**

El procedimiento de concesión será el de concurrencia competitiva, con las preferencias según los puntos que se señala a cada estado subvencionado, estableciéndose la prelación de las solicitudes y prorrata:

1.- Las subvenciones se concederán a todas las personas solicitantes que cumplan los requisitos establecidos en las bases establecidas y en la presente convocatoria, en los importes que se reseñan, siempre que no se supere el límite de la partida presupuestaria y por aplicación de los siguientes criterios:

a) Se valorarán los estudios de grado y posgrados oficiales de segundo ciclo, con 100 puntos.
b) Se valorará los estudios de posgrados oficiales de tercer ciclo con 80 puntos.
c) Se valorarán los estudios de ciclos for-

Zamudio Udala
www.zamudiokoudala.net
Sabino Arana plaza 1, 48170 Zamudio, Bizkaia
Tel: 944060990 / Faxa: 944030622 / udala@zamudiokoudala.net

ketek 60 puntu izango dute.
d) Batxilergoko ikasketek 60 puntu izango dute.
e) Gradukoen baliokide diren musika-ikasketek 60 puntu izango dute.

f) Hizkuntza-ikasketek 40 puntu izango dute.

2.- Lehiaketaren kasuan aplikatuko diren irizpideak hauek izango dira:

a) Ekitaldi aurrekontu-kreditua puntuaziorik handiena duten eskatzaileen artean banatuko da, aurreko zenbakian ezarritako balioespen-puntuen arabera.

b) Emandako diru-laguntzen zenbatekoak gaindituko balitu 1. zenbakian adierazi diren aurrekontu-mugak, orduan prorratan banatuko litzateke guztien artean, bakoitzerako ezarritako puntuekin proportzioa gordez; nolanahi ere, Udalbatzak ahalmena izango du dagokion aurrekontuko partida behar besteko zenbatekoaz hornitzeko. Horren ondorioz, diru-laguntza emateko, ezarritako titulazioei dagozkien zenbateko guztien artean proportzioan banatuko da aurrekontu-kredituaren mugara iritsi arte.

c) Arauon babesaren pean eskatzaile bati inoiz ez zaio diru-laguntza bat baino gehiago emango ikasturte berean ikasketak egiteko. Eskatzaileren batek eskubidea badu ikasturte bakoitzeko laguntza bat baino gehiago izateko, zenbatekorik handienekoa emango zaio bakarrik, eta bigarrena ezetsi. Laguntza emateko eskari bat baino gehiago aurkezten badira eta laguntza bat baino gehiago jasotzeko betekizunak betetzen badira, diru kopururik handiena duena

mativos, con 60 puntos.
d) Se valorarán los estudios de bachillerato con 60 puntos.
e) Se valorarán los estudios de música equivalentes a grado de música con 60 puntos.
f) Se valorarán los estudios de idiomas con 40 puntos.

2.- Los criterios que se aplicarán en el caso de concurrencia competitiva serán los siguientes:

a) El crédito presupuestario de cada ejercicio, se concederá entre aquellos solicitantes que más puntuación obtengan en función de los puntos de valoración estipulados en al apartado anterior.

b) En el caso de que el importe de las concesiones superase los límites presupuestarios establecidos en el apartado 1 se acudirá a la aplicación del prorrateo entre todas ellas, en proporción a los puntos establecidos para cada una, sin perjuicio de la facultad de la corporación para proceder a dotar del importe suficiente la partida presupuestaria correspondiente. En virtud de la misma la concesión de la subvención se lleva a cabo distribuyendo de forma proporcional entre todos los importes correspondientes de las titulaciones establecidas hasta el límite de crédito presupuestario.

c) En ningún caso se concederá a un mismo solicitante más de una subvención para cursar estudios en el mismo ejercicio al amparo de la presente convocatoria. En el caso de que un solicitante pudiera tener derecho a más de una ayuda por curso, se concederá únicamente la que resulte de mayor cuantía, desestimando la concesión de la segunda. En el caso de que presente más de una solicitud y cumpla los requisitos para percibir más de una ayuda se concederá la de mayor importe desesti-

Zamudio Udala
www.zamudiokoudala.net
Sabino Arana plaza 1, 48170 Zamudio, Bizkaia
Tel: 944060990 / Faxa: 944030622 / udala@zamudiokoudala.net

onartuko da eta gainerako guztiak baztertu egingo dira. Zenbateko berekoak badira, sarrera-erregistroa eman zaion lehenengoari emango zaio laguntza.

d) Dena dela, lehentasun-hurrenkera ezarri beharretik salbuetsiko da deialdi honetan aurrekontu ekitaldi bakoitzerako izendatutako kreditua nahikoa bada, kontuan izanik zenbat diren aurkezteko epea amaitu ondoren onartuak izan diren eskaerak.

e) Deialdi honen 4. artikuluko A), B), C) eta D) letretan aipatutako ikasketetarako inoiz ez da emango laguntzen xede diren ikasketen matrikula-kostuen zenbatekoak baina diru-laguntza handiagoak. Horrek ez du eragotziko laguntzaren xede den ikasturteko ikasgaiei dagozkien ikasketa-liburuen fakturekin justifikatzea diru-laguntzaren zenbatekoaren eta matrikularen kostuaren arteko aldea.

3.- Instrukzio-organoak egiaztatuko du eskatzaile guztiek betetzen ote duten arauetan eta deialdi honetan xedatutakoa; hala badagokio, behar diren datu edo agiriak zuzentzeko eskatuko du eta, orduan, dagokion proposamena egingo du izapideak egin aurretik.

4.- Ebatzitakoa jakinaraziko zaie hala diru-laguntza ematen zaien pertsonei nola diru-laguntza ukatzen zaienei, eta arrazoiak eta organo-ebazleak egokitzat jotzen dituen gainerako baldintzak adieraziko zaizkie.

**10.- artikulua.- Diru-laguntza ordaintzeko modua**

1.- Diru-laguntzaren zenbateko osoa ordainduko da onuradunak adierazitako banku kontuaren zenbakian, ikasturtea amaitu eta diru-laguntzak ebatzi eta gero.

mando las demás. En el caso de que sean de igual importe, la ayuda se concederá a la primera que hubiera tenido registro de entrada.

d) No obstante se exceptuará del requisito de fijar un orden de prelación si el crédito consignado en la presente convocatoria fuera suficiente, atendiendo al número de solicitudes aceptadas una vez finalizado el plazo de presentación.

e) En ningún caso se subvencionará para los estudios a que se refieren las letras A), B), C) y D) del artículo 4 de la presente convocatoria por importes mayores a los costos de las matrículas de los estudios objeto de las ayudas. Sin perjuicio de que la diferencia entre el importe de la subvención y el costo de la matrícula pueda ser justificado mediante facturas de libros de estudios correspondientes a materias del curso objeto de la ayuda.

3.- Por el órgano instructor se procederá a la comprobación del cumplimiento de lo dispuesto en las bases reguladoras y en la presente convocatoria por todos los solicitantes, requiriendo, en su caso, la subsanación de aquellos datos o documentos que sea preciso, formulando la propuesta correspondiente previa realización de la tramitación oportuna.

4.- Se notificará, tanto a las personas a las que se les concede subvención como a las que se deniega, señalando las causas y demás condiciones que el órgano resolutorio estime oportuno.

**Artículo 10.- Forma de pago de la subvención**

1.- El importe total de la ayuda se abonará, una vez finalizado el curso y resuelta la concesión de las ayudas, ingresándolo en el número de cuenta bancario indicado por la persona beneficiaria.

Zamudio Udala
www.zamudiokoudala.net
Sabino Arana plaza 1, 48170 Zamudio, Bizkaia
Tel: 944060990 / Faxa: 944030622 / udala@zamudiokoudala.net

Norbaiti laguntzarik ematen bazaio akademia eta beste hezkuntza zentro batzuetan ikasketak egiteko, laguntzaren zenbatekoa akademiari ordaindu ahal izango zaio zuzenean, eskatzaileek hala egitea nahi dutela adierazten badute esplizituki; bestela, onuradunak aipatutako kontu-zenbakian ordainduko da. Ordainketa akademiari egingo zaiola adierazten bada, akademiak langileen zerrenda aurkeztu beharko du Udalean, bakoitzaren kostua hilabeteko eta fakturazioari dagokion aldiko zehazturik.

2.- Diru-laguntzaren zenbatekoa sartu aurretik, onuradunak adierazi beharko du bankuko zein kontu-zenbakitan nahi duen dirua sartzea, diru-laguntza kontu-zenbaki horretan sar dadin. Hurrengo ekitaldietan pertsona berari ematen bazaio ikasketa-laguntza bat, ez da beharrezkoa izango datu horren berri ematea, salbu eta onuradunak eskatzen badu beste kontu-zenbaki batean sartzeko.

3.- Laguntzaren xede izan den ikastaroren batek hiru hiruhileko baino gutxiago irauten badu, laguntzaren zenbatekoa ikastaroaren iraupenaren proportzioan gutxituko da, eta arau hauetan ezarritakoaren arabera justifikatu eta ordainduko da.

4.- Betebeharrak beteko dituela eta emandako dirua egoki erabiliko duela bermatzeko ez da bermea eman beharrik izango.

5.- Onuradunari ez zaio diru-laguntzarik ordainduko, baldin eta aurreko ekitaldietako diru-laguntzaren baten zuribidea Udalak onartu gabe badago. Onuradunari aurreko diru-laguntzaren bat itzultzeko eskatu bazaio eta itzuli ez badu, orduan ere ez zaio ordainduko.

A quienes se les conceda ayudas para cursar estudios en academias y otros centros de enseñanza, el importe de la ayuda se abonará directamente a la academia si así lo manifiestan explícitamente y por escrito los solicitantes, y si no se abonará en el número de cuenta indicado por la persona beneficiaria. En el caso de que se manifieste que el pago se realizará a la academia, ésta deberá presentar en el Ayuntamiento la relación del alumnado con la determinación del costo de cada uno, por mes y periodo a que se refiere la facturación.

2.- La persona beneficiaria deberá presentar antes de la realización del ingreso de la subvención el número de cuenta de la entidad bancaria en el que desea que se realice el ingreso, a fin de efectuar en la misma el abono de la subvención. En el caso de que en ejercicios sucesivos se conceda a la misma persona una ayuda de estudios, no será precisa la presentación de dicho dato, salvo que a instancia de la persona beneficiaria se solicite el cambio.

3.- Para los cursos que sean objeto de ayuda y duren menos de tres trimestres el importe de la ayuda se reducirá de forma proporcional a la duración del curso, y se procederá a la justificación y abono de la forma establecida en la presente convocatoria.

4.- No se exigirá el depósito de garantía alguna a fin de garantizar el cumplimiento de las obligaciones y el destino de los fondos concedidos.

5.- No se realizará el abono en el caso de que la persona beneficiaria tuviera alguna subvención de ejercicios anteriores cuya justificación no hubiera sido aprobada por el Ayuntamiento. Tampoco procederá el abono si la persona beneficiaria no ha reintegrado alguna subvención anterior cuando así se le haya requerido.

6.- Onuradunak Udalari dirurik zor badio, Udalak laguntzaren zenbatekoarekin egin ahal izango du konpentsazioa.

6.- El Ayuntamiento podrá compensar el importe de la ayuda con cualquier deuda que la persona beneficiaria tuviera con el Ayuntamiento.

**11. artikulua.- Diru-laguntzaren zuribidea**

Ikasteko diru-laguntzaren zuribidea egiteko, eskabide-orriarekin batera, honako agiriak aurkeztu beharko dira:

Oinarri hauen 7. artikuluan jasotakoak eta, beharrezkoa denean, diru-laguntzaren xede diren gastuak egiaztatzen dituzten fakturak.

**Artículo 11.- Justificación de la subvención**

La justificación de la ayuda de estudios concedida se realizará mediante la presentación, junto con el impreso de solicitud, la siguiente documentación:

Los recogidos en el artículo 7 y, en los supuestos que procedan, las facturas acreditativas de los gastos objeto de subvención.

**12. artikulua.- Onuradunaren betebeharrak**

Diru-laguntzaren onuradunak oinarri arautzaileetan ezarritako betebeharrak ez ezik beste hauek ere bete beharko ditu:

1.- Diru-laguntzak emateko prozeduraren araudian ezarritako betebeharrak betetzea.

2.- Finantza-egoera egiaztatzeko eta kontrolatzeko jarduerei men egitea; beraz, jardueroi buruz eskatzen zaizkion argibide guztiak eman behar ditu.

3.- Ematen den laguntza onartzen ez bada, Zamudioko Udalari gehienez ere zazpi eguneko epean idatziz jakinaraztea, Zamudioko Udalaren jakinarazpen ofiziala jasotzen den egunetik aurrera. Onarpen hori aipatutako epearen barruan aurkezten ez bada, onartu egiten dela ulertuko da.

4.- Jasotako dirua itzultzea, baldin eta Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorraren 37. artikuluan xedatutakoaren arabera diru-laguntza itzuli beharra badu.

**Artículo 12.- Obligaciones de la persona beneficiaria**

Son obligaciones específicas de la persona beneficiaria de la subvención, además de las contenidas en las bases reguladoras, las siguientes:

1.- Cumplir las obligaciones impuestas por la normativa reguladora de la concesión de subvenciones.

2.- Someterse a las actuaciones de comprobación y control financiero, aportando cuanta información les sea requerida en el ejercicio de estas actuaciones.

3.- Comunicar por escrito al Ayuntamiento de Zamudio, en su caso, la no aceptación de la Ayuda concedida, en un plazo máximo de 7 días, contados a partir de la fecha de recibo de la notificación oficial del Ayuntamiento de Zamudio. En el caso de que no se presente dicha aceptación en el plazo indicado, se entenderá que la acepta.

4.- Proceder al reintegro de los fondos percibidos en caso de incurrir en causas de reintegro de las señaladas en el Artículo 37 de la Ley General de Subvenciones.

5.- Zamudioko Udalari idatziz jakinaraztea ikasturtea amaitu dela edo, kasua bada, bertan behera utzi dela.

5.- Comunicar por escrito al Ayuntamiento de Zamudio la terminación del curso académico o, en su caso, el abandono de los mismos.

6.- Udalak adierazitako egunean eta orduan agertzea, laguntza bere helburura aplikatu den jakiteko behar diren argibideak emateko.

6.- Acudir en el día y hora que se señale por el Ayuntamiento, a fin de realizar las aclaraciones que sean necesarias sobre la aplicación de la ayuda concedida al fin correspondiente.

7.- Arau hauetan aipatutako agiriak ezarritako epeen barruan aurkeztea.

7.- Presentar en los plazos establecidos la documentación reseñada en la presente convocatoria.

**13. artikulua.- Beste diru-laguntza batzuekiko bateragarritasuna**

**Artículo 13.- Compatibilidad con otras subvenciones**

1.- Zamudioko Udalak ematen dituen diru-laguntzak bateragarriak izango dira beste administrazio edo erakunde publiko nahiz pribatuek ematen dituzten diru-laguntzekin, baita laguntzaren xede diren ikasketak finantzatzeko ematen diren beste edozein eratako diru-sarrerekin ere; ez dira bateragarriak izango, ordea, ikasketok gehiegi finantzatuta gertatzen badira.

1.- Las subvenciones que pudieran percibirse del Ayuntamiento de Zamudio serán compatibles con la de otras administraciones o entes públicos o privadas o cualquier otro tipo de ingreso para financiar la actividad los estudios objeto de la ayuda, siempre que no se produzca sobre financiación.

2.- Udalak inoiz ez du jarduera jakin eta zehatz bat birritan finantzatuko diru-laguntzetarako deialdi desberdinen bidez.

2.- En ningún caso será objeto la actividad concreta y específica de una doble financiación por el Ayuntamiento, a través de distintas convocatorias de subvenciones.

**14. artikulua.- Publizitatea**

**Artículo 14.- Publicidad**

Emandako diru-laguntzaren ezaugarriengatik, salbuespen moduan, onuradunak salbuetsita geratuko dira emandako diru-laguntzari publizitatea emateko betebeharretik, hargatik eragotzi gabe diru-laguntzei buruzko araudiak eta gardentasunari buruzko araudiak publizitatearen arloan ezarritako betebeharrak.

Por razones de las características de la subvención concedida, se exime, de forma excepcional, a las personas beneficiarias de la obligatoriedad de dar publicidad a la subvención concedida, sin perjuicio de las obligaciones sobre publicidad impuestas por la normativa de subvenciones y la normativa sobre transparencia.

Oinarri hauen babesean diru-laguntzak ematen zaizkien pertsonak publiko egingo dira indarreko araubidean ezarritako legez,

Las personas que sean objeto de la concesión de subvenciones al amparo de la presente convocatoria serán objeto de publicidad en

Zamudio Udala
www.zamudiokoudala.net
Sabino Arana plaza 1, 48170 Zamudio, Bizkaia
Tel: 944060990 / Faxa: 944030622 / udala@zamudiokoudala.net

Diru-laguntzen Datu Base Nazionalean, nahiz eta datu horiek bereizita egongo di-ren haien babesa bermatzeko.

los términos establecidos en la normativa vigente en la Base de Datos Nacional de Sub-venciones, si bien los datos estarán disocia-dos a fin de garantizar la protección de los mismos.

## AZKEN XEDAPENA

Diru-laguntza eskaerak ebazteko prozedura Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean, Udal Ordenantza Orokorrean eta berariazko arauetan xedatu-takoaren araberakoak izango dira.

## DISPOSICIÓN FINAL

El procedimiento para la resolución de las solicitudes de subvención se ajustará a lo dispuesto en la Ley 38/2003, de 17 de no-viembre General de Subvenciones, en la Or-denanza Municipal General y en lo dispuesto en las Bases específicas.